


SECCION AMENA



NESKACHAK

—Mariya atoz aguro.
 —Jauna ¿ta zer naidu?
 —Ekatzu beste sopa.
 —¿Orrek zerbait aldu?
 —¿Zerbait duben? Geiegi,
 zergatik begiak
 saldan gustatzen zaizkit
 bañan ez illiak.



—Orra Madalen, zuri
 ekarri nairikan
 melokotoi eder bat
 izandu naiz plazan.
 ¡Ai! bañan aztukorra
 naiz ni batzubetan
 eta netorrenian....
 —¿Zer egin dezu?
 —Jan.

MARZELINO SOROA.

